

Arrasate

P R E S S

1997ko
irailak 18
375. zenbakia

IKUSPEGIA
ANDER
ETXEBERRIA

IRITZIA
ANA HERIZ

KULTURA
INES ETA NAIARA
TRIKITILARIAK

30 GALDERATAN
JUAN LUIS
IRAZOLA

BERRIAK
ITURBIDE
EGOITZA

Meningitis C kasuak gehitu direla eta Osakidetzak gaisotasunaren aurkako txertaketa kanpaina abian jarri du. Arrasaten, astelehenean hasita 18 hilabetetik 20 urtera arteko gazteek hartu beharko dute

Meningitisaren txertoa



Arrasateko OSASUN GIDA

DENTISTAK

- ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz 35 ☎79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz 17,1 Ezk..... ☎79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea..... ☎79 71 90
- GIPIZKOA ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTROA Iturriotz 7 Bis..... ☎79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz 7, 1º..... ☎79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5 ☎79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B..... ☎77 12 63

DERMATOLOGIA

- ROBERTO ZABALA. (Mendia Jauregia) Erdiko Kale, 22-1..... ☎79 72 16

FISIOTERAPEUTAK

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA ERREHABILITAZIO ZENTROA Olarte 43 Bis .. ☎77 03 96

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTROA Zurgin Kantoi, 3-Esk..... ☎79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA Ignacio Zuloaga,10 ☎79 48 77

MASAILARIAK

- EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk..... ☎77 06 22
- JOSE LUIS ABUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai)..... ☎77 01 33

MEDIKU-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎79 44 22

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño,6 ☎79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño,2 ☎79 89 34

OSTEOPATIA

- NEREA BENGEOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Errebuelta, 2 (Mobila) ☎989 58 66 89

OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea..... ☎79 20 18

PODOLOGOAK

- AZKARATE MORRAS Uribarri etorbidea, 5 behea ☎79 53 63

PSIKOLOGOAK

- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ☎79 88 16
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA Ignacio Zuloaga 10 ☎79 48 77

REUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar 1, 1 ☎77 00 40
- JUAN RAMON ARANDO. Erdiko kale, 22 -1 ☎79 72 16

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎79 44 22

ACDC

Ikusi makusi; zer ikusi; gauzatxo bat A-kin hasi eta ondoren CDC siglak dituena. Ez, ez da kasu honetan musika taldea, ez eta korrante alternoa eta zuzena ezberdintzeko modua. Pertsonaia historiko bat da, joan zen mendeko Penintsulako politikari ezagun bat, gure artean garrantzi handia eduki zuena. Hiru pisten bitartez errazagoa izango duzu nor den asmatzea. Pistak berak idatzitako edo esandako esaldiak dira (itzulpenak nik egin ditut):

Bat. «Nazio lez, gaur egun, orokorrean, ondokoá ulertzen dugu: arrazak, ahaidetasunik edo hizkuntzak batzen duen gizon multzoa, lurralde zabal batean bizi eta baldintza



Ander Etxeberria

“Garai haietan, alde guztietako politikari eta pentsalarien artean normala zen arraza terminoa erabiltzea”

historiko bategatik edo bestegatik erregimen eta gobernu baten menpe daudenak». Arraza hitza agertzen da definizio honetan baina ez da Sabino Arana. Izan ere, garai haietan alde guztietako politikari eta pentsalarien artean normala zen termino hori erabiltzea.

Bi. «Zeinahi dela ere bere egungo egoera, gaur existitzen den nazio orok bizitzen jarraitzeko arazoia eta eskubidea dauka, berri-tuz, indartuz, garatuz, berriro haziz...». Abertzale sutsua zen eta

Euskal Herriarengatik asko egin zuen... baina kontra, bere aberria beste bat baitzen. Aberri horren indartzeak eta hedatzeak hegoaldeko euskal lurraldeekin egin zuen topo, eta 1876ko

uztailean, bigarren karlistadaren ostean, euskal foruetatik gelditzen zena bipildu zuen. ACDCk gidatzen zuen Espainiako gobernu. Inguruko beste herri batzuek zorte hobea goa izan zuten eta subirano izaten darrarite, Andorrek adibidez.

Hiru. «Aberriarekin arrazoiarekin edo arrazoirik gabe egoten da, bizitzako une guztietan, aitarekin, amarekin, familiarekin egoten den bezala...» eta «Indarrak Estatua dakarrenean, indarra eskubide bilakatzen da». Aurreko puntuan aipatutako foruei emandako azken sastada, euskal lurraldeak militarki okupatuta zeudela eta lege martziala indarrean zegoela (hiru urtetan mantendu zen egoera hau) gertatu zen.

Dagoeneko igarri duzu. Bai, abuztuan gogoratu digutenez, orain ehun urte hemendik gertu, Gesalibarrren, italiar anarkista batek hil zuen Antonio Canovas del Castillorenak dira letrak.

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otolora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Marian Porca. **Publizitatea:** Katilin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikernu Altube (Tel.: 79 02 26). **Diselnuia:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Itxaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobengoa, Mikael Irizar, Udaleko Gazteria Salla, ASA taldea, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Urbarren, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agoria, Jose Mari Aselgarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmelo Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barneña. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28).
© ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6 200. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua.
Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta intzieren erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Goio Arana

Arrasateko Udaleren laguntza

Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sallaren laguntza

375. zenbaki honetan

1997ko irailaren 12an

Asteko agenda.....	4/5	Orain eta hemen .11/13	30 galderatan22
Irakurlea idazle	6	Txutxumutxuak.....	14/15
Inkesta.....	7	Asteko gaia	17/19
Euren ikuspuntutik	8	Kirolak jokoan.....	20/21
			Foto zaharra30

Ikuspegia
Ander Etxeberria.....3

Kirolak jokoan
Mondra emakume taldea.....20

30 galderatan
Juan Luis Irazola22

Kulturaren txokoa
Havana musika taldea.....24

Asteko gaia
Meningitisaren kontrako txertoa17/19

A eta C motako meningitisen kontrako txertaketa kanpaina hasiko da irailaren 15ean Arrasaten. 18 hilabetetik 20 urtera arteko gazteek hartuko dutenez txertoa, Josu Ibarra Anbulategiko sendagilearekin izan gara gaisotasun horren nondik norakoak ezagutzeko.

12

ostirala

■ ZINEA

Batman and Robin. Alai zineman 7etan eta 10etan.

■ ERGUINGO JAIK

Arratsaldeko 7etan meza. Ondoren buruhandiak eta mahai jokoak. 7.30etan txikittoa eta luntxa jubilatuetako. Gaueko 11etan *Continente* taldearekin dantzaldia Udalpe plazan.

■ GAZTETXEAN KONTZERTUA

Cubako *Havana* taldearen kontzertua Arrasateko GAZTETXEAN gaueko 10etan.

13

larunbata

■ ZINEA

Batman and Robin. Alai zineman 5etan eta 7.30etan. *Asesinato en la Casa Blanca*, gaueko 10etan.

■ HARITZ ETXEBERRIA "TXIRI"ri OMENALDIA

Orain urte bete hil zen Haritz Etxeberriaren omeneko mendi irteera. Parte hartu nahi dutenek, goizeko 10etan Arbolapetan egon beharko dute.

■ ERGUINGO JAIK

Goizeko 10etan diena. 11etan pilota txapelketa. Arratsaldeko 4etan mus txapelketa. 5etan jokoak umeendako. 7etatik 9.30ak arte txikittoa trikitilariak alaituta. Gaueko 11etan *Calisma* taldearekin dantzaldia Udalpe plazan.

■ BERTSO JAIALDIA BERGARAN

Gaueko 10.30etan Bergarako Novedades aretoan. Bertsolariak: Ainhoa Agirreazaldegi, Jon Sarasua, Mañukorta, Peñagarikano eta Eguzkitze. Gai jartzailea: Joxerra Gartzia. Trikitilariak Landa aita-emeak eta Oihulari Klownekin bertso klownak. Jardun elkarteak antolatuta.

14

igandea

■ ZINEA

Batman and Robin. Alai zineman 5etan eta 7.30etan. *Asesinato en la Casa Blanca*, gaueko 10etan.

■ ERGUINGO JAIK

Goizeko 10etan diana. 10.30etan atletismo probak Iturripen. 11.30etan herri kirolak Arimazuri plazan. Arratsaldeko 5etan Kiki, Koko, Moko eta Flax pailazoak Usaetxe plazan. 7etatik 9.30ak arte *Txinparta* taldearekin dantzaldia Arimazuri plazan. Gaueko 10etan jaien bukaera.

■ ERROMESALDIA ARANTZAZURA

Oinezkoentzat irteera goizeko 6.30etan. Itzultzeko autobusa egongo da eguerdiko 1.30etan. Txartela Ecuador bidaiak erosi behar da. Autobusez doazenentzat, goizeko 9.30etan irtengo du San Juanetik eta Musakolatik. Itzulera eguerdiko 1.30etan edo arratsaldeko 5etan. Eguerdiko 12etan meza Arantzazun, Jose Mari Astigarraga parrokoak emanda.

■ KURTZEBARRI EGUNA

Goizeko 10.30etan meza. Murruxiko mendizale elkarrekin txanpaina eta salda banatuko du bertara hurbiltzen diren guztien artean. Giroa alaitzeko trikitilariak izango dira.

15

astelehena

■ ZINEA

Asesinato en la Casa Blanca. 7etan eta 9.30etan.

■ ODOL EMATEA

Anbulategian arratsaldeko 4.30etatik 8ak arte.

16

asteartea

■ ZINEA

Asesinato en la Casa Blanca. 7etan eta 9.30etan.

■ ODOL EMATEA

Anbulategian arratsaldeko 4.30etatik 8ak arte.

17

asteazkena

■ HITZALDIA MONTERRONEN

Gaia: Prostituzioa. Hizlariak: Cristina Garaizabal eta Purificación Gutierrez. Monterronen 7etan. Emakumearen Asanbladak antolatuta.

■ ODOL EMATEA

Anbulategian arratsaldeko 4.30etatik 8ak arte.

■ GRIPEAREN

AURKAKO TXERTAKETA

Irailaren 15etik urriaren bukaera arte gripearen aurkako txertaketa izango da Arrasaten. Bi talde bereiztuko dira: 65 urtetik gorakoak eta gaixotasunak dituztenak. Txertoa hartzeko anbulategira zuzendu behar da astelehenetik ostiralera, goizeko 9etatik 3ak arte. Auzoz auzo irailaren zehar egun hauetan egingo da: irailaren 24an San Andresen, 25ean Abaroan, 26an Urribarrin, 29an Santamainan eta 30ean Musakolan. Ordutegia eguerdiko 12etatik ordubata arte.

■ HELDUEN HEZIKETA IRAUNKORREKO ZENTROAN MATRIKULA ZABALIK

Helduen hezkuntza iraunkorreko zentroan matrikula zabalik dago irailaren bukaera arte. Matrikula egin edo informazio gehiago eskuratu nahi duenak 77 11 72 zenbakira deitu edo zentroak Ferrerías kalean duen egoitzara zuzendu. Ordutegia: goizez 10etatik 1ak arte eta arratsaldez

4etatik 7ak arte.

■ HASERAKO MASAIA IKASTAROA

Irailaren 27tik abenduaren 13a arte larunbatero arratsaldeko 5etatik 8ak arte emango da hasierako masaia ikastaroa. Besteak beste ekialdeko eta mendebaldeko masai desberdinak irakatsiko dira. Informazio gehiagorako deitu 79 35 76 zenbakira edo zuzendu Jose Luis Iñarra pasealekuan Yoga Elkartera. Emalea Jose Luis Armen dia izango da.

■ ARRASATE MUSIKALEN IKASTURTEA

Irailaren 19 arte Arrasate Musikalen izena emateko epea zabalik egongo da. Astelehenetik ostiralera arte horretarako aukera egongo da bertako Idazkaritzan arratsaldeko 5etatik 8ak arte. 4 urtetik aurrerakoentzat.

■ JESUSI ETXEBARRIAREN MUSIKA ESKOLA

Irailaren 30a arte Jesusi Etxebarria Musika Eskolaren matrikula

zabalik egongo da. Izen ematea arratsaldeko 4etatik 9ak arte Iturriotz kalea 32 behean, telefono zenbakia 79 17 67. Klaseak umeendako, 5 urtetik hasita eta helduentzat. Solfeoa, abesbatzetako kantua, akordeoia, gitarra, txistua eta pianoa ematen dira.

■ KARIBEKO DANTZEN IKASTAROA

Irailaren 15etik urriaren 15era arte Salsa, merenge eta batxata ikastaroa Musakolako saloian. Klaseak astelehenetan eta asteazkenetan emango dira arratsaldeko 7.30etatik 9.30etara. Matrikula 4.000 pta. Ikasle eta langabetuentzat 2.500 pta. Izen ematea Gazte bulegoan (77 00 65).

■ BESAIDEREKIN MENDI IRTEERA

Irailaren 28rako Besaidek mendi irteera antolatu du Bidarrai, Irubelakaskoa eta Amalurra. Izen ematea irailaren 22an, 23an, 24an eta 25ean, arratsaldeko 7.30etatik 8.30ak arte Besaideren egoitzan.

AEDk egun erdirako dinamizatzaile bat kontratatu behar du

Eginkizunak: EUSKALAN eta EKIN EMAKUMEAK elkarteak dinamizatzea.

Hautaketa probetan parte hartu gura izanez gero, bidali curriculum AEDra, (Pablo Uranga, 4 • 20.500 ARRASATE) irailaren 19a baino lehen.

Informazio gehiagorako dei egin 77 12 28 telefonora edo etorri Pablo Uranga, 6an dugun bulegora.



978 Ikasturtea

- Oinarrizko Ofimatika Windows 95 Ingurua
- Diseinu eta Komunikazio Grafikoa
- Fotokonpozizioa
- Komunikazio eta Sare Lokalak
- Programazio Informatika
- Kontabilitate eta Komertzial Gestio mekanizatua
- Zerga Gestioa PYMES-etan
- Giza Errekurtsoen Administrazioa
- Kanpo Komertzioa
- Mekanografia ordenagailuz
- Laguntasun Klaseak
- Merkatal eta Informatikako Aplikapenak Euskaraz
- Postari Oposaketak
- Planoen Interpretazioa
- Hidraulika
- Neumatika
- Kalitatearen Gestioa
- Internet
- Administrazio Teknikaria
- Administrazio Laguntzailea
- Klinika Laguntzailea

Larunbat
goizetan ere
klaseak

MATRIKULA ZABALIK

LANGAI- Euskal Lan Zerbitzura Atsikia

AKADEMIA

BASTIDA

CENTRO HOMOLOGADO POR EL INEM

Araba Etorb., 3 - 1.a
ARRASATE-MONDRAGÓN
Tel.: 79 35 33
Fax: 79 06 28
e-mail: bastida@facilnet.es

Telebista ikusteagatik ordainduko zenuke zerbait?



Roberto Ganbra
langilea
(22 urte)

Interesatzen balitzait ordainduko nuke; bestela ez.



Amalia Gomez
Langilea
(49 urte)

Ez nuke ordainduko, ez zait ondo pentsatzen telebista ikusteko ordaintzea.



Jose Ramon Nuñez
Langilea
(38 urte)

Oso txarto iruditzen zait, ni neu orain behintzat ez nago ordaintzeko gertu.



Esther Arkonada
Langilea
(22 urte)

Telebista ikusteagatik ordaindu?, ezta pentsatu ere. Hala ere, orain dauden kate-tan pelikula hobeak emango balituzke eskertuko nuke.




Juan Carlos Perez
Langilea
(39 urte)

Ez nago ados ordaintzearekin. Egia esateko ez dut telebista asko ikusten eta nahikoa dut dauzkagunekin.



Mainer Mora
Ikaslea
(18 urte)

Gustoko programazioa egonez gero, ordaintzeko gertu egongo nintzateke.



Jose Ramon Urizarren
Jubilatua
(71 urte)

Ordaindu ezer ere ez, bestela ere nahikoa ordaintzen dugu.



Amaia Moreno
Etxekoandrea
(36 urte)

Orain behintzat ez nuke ordainduko telebista ikusteagatik, ez zait ondo iruditzen. Kolorezko telebista erostea asko kostatu zitzaidan, beraz pentsa orain ordaindu behar badut!

ARRASATE HOTELA



Biteri, 1 Tel.: 79 14 16
ARRASATE

IBARRA Garajea S.L.



Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

UGARTE

Industri
hornidurak

Arrasate pasealekua
Tel.: 79 83 96 / 79 23 00
Fax: 793412

• Txitxinpe •
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE • Tel.: 79 67 76

USTEAK USTE

Joan-etorrien aitzakian

Astea lasai antzean joan denez, hiru lankide agurtzeko aprobetxatuko dut gaurko zutabetxoak: Maider Egües, ondo jakingo duzuen moduan, orain pare bat hilabete joan zen. Handik gutxira hanka egin zigun Alberto Garrok. Eta Maria Agirre, aste honetan alde egin duena.

Jendearen joan-etorriak normalak dira etxe honetan, dirulaguntzen bidezko finantziarioa dela eta, ez dagoelako finkotasunerako aukerarik. Produktuan badu horrek eraginik, jakina, baina gehiago lan taldearen lagun giroan. Hasieran apur bat ezagutzen duzu jendea, harremana estutu egiten da, eta bukarean gogorra egiten da agur esatea. Datozen berriei kaixo esan eta ia berriro zerotik hastea bezain gogorra, baina zer erremedio!

Azkenaldian joan direnak jakin dezatela behintzat denbora tarte hau gustora egin dudala, konpañia onean. Eta aurrerantzean horrek emango dit sasoi honetako argazkiei begiradaren bat edo beste egiteko aitzakia.

Beñardo Kortabarría



Turismoa erakartzeko bidean aurrera

Ana Heriz

Mende honen hasieran Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasateko herriak ezagunak izan ziren bertako Bainuetxeetara bisitari ugari hurbiltzen zelako; aldiz, gaur egun turismo iharduera Deba Garaian ez dago garatuta. Dena den, azken urteotan turismoaren joera aldatu egin da, ohiko eskaintzez gain produktu turistiko berriak sortu dira. Deba Garaiak baditu erakargarriak diren hainbat baliabide: paisaia, arte, kultura, erlijio... aldetik ezezagunak direnak eta garatu daitezkeenak.

Eskualdeko Turismo Sektorearen Garapenerako Plan Integralean Deba Garaiko Turismo

Ekintzetarako Zentroa osatzea proposatzen da, turismo arloan erakunde pribatuak eta publikoak garatuko dituzten ekimenak kudeatu, koordinatu, bultzatu eta betetzeko helburuaz eskualdeko garapen turistikoa lortzeko, ingurugiroa eta aberastasun historikoak errespetatuz.

Momentu honetan zentro hau martxan jartzeko lehen

pausoak ematen ari dira, zentroaren gestio proiektua eta juridikoki ezarri beharreko ereduaz aztertuz. Aldi berean ezinbestekoa ikusten da turismo sektorean inplikaturik dauden agente sozioekonomikoekin hartuemanak izatea eta sektorea garatzeko eta komertzializatzeko eginbeharrak aztertzea. Honela, irabazi asmorik gabeko elkarte honetan turismo iharduerarekin lotura duten agente publikoak (Deba Garaiko Mankomunitateko Udalak) eta pribatuak (artisautza, gastronomia, ostalaritza, turismo zerbitzuetako enpresak, etab.) zeresan eta zer proposatu izango dute eskualde mailan turismoa garatzeko.

Ana Heriz Turismo Zentroko teknikaria da.

**“
Ezinbestekoa da turismo sektorean inplikaturako agenteekin hartuemanak izatea
”**

URRATS
AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3
Tel.: 79 87 74
ARRASATE

GORKA
ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA
Ferrerías, 35 ARRASATE
Tel.: 77 13 78

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduktzioa
Offseta

Ferrerías, 23 • ARRASATE
Tel.: 79 46 62

ARRASATEKO ERDU AEK EUSKALTEGIA

MAILA GUZTIAK, EGA eta ALFABETATZE


Matrikula epea irailak 26

Beka sistema

Informazioa eta matrikula: ERDU AEK EUSKALTEGIA
Garibai kalea 14, 3 (Sindikatu etxea) • Tel.: 77 03 69
Udalaren laguntzaz



**EZ UTZI GEURE GARRA
ITZALTZEN!**



Izena eman

**EUSKARA
GALDUZ GERO
AKABO
GURE HERRIA**

dek

EUSKALTEGI ETA BARNETEGIETAN (FORU) eta ONDARRORAN T.O. 01/1676 25



Etxe

mobiliario y
decoracion

- PROIEKTUAK
- BARNE-DISEINUA
- OBRAK



*Horma-armairuak intxaur, gerezi-ondo
eta haritzean.*

Ispiluzko aurrealdeak, etab.

Ferrerias, 17 (Alde Zaharra) • Tel. eta faxa: 79 03 17 • ARRASATE

Ongi etorri euskarara!

Ongi etorri Arrasateko Udal Euskaltegia!



1997-98 IKASTURTEKO EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza

EUSKALDUNTZE, ALFABETATZE eta
EGA maila guztiak

Erritmoak

2, 3, 4 eta 5 ordu egunero

Beka sistema daukagu

Bulego ordutegia

Goizez: 10.00-13.00

Arratsaldez: 15.00-19.00

Matrikulaldia

Irailaren 1etik 17ra arte

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA

Arimazuri plaza, 2
ARRASATE

Tel.: 79 70 77 - 79 77 88



UDAL

EUSKALTEGIAK

astea bi hitzetan

■ Pitote gogoratu Udalatxen

Roberto Sampedro, *Pitote*, orain dela urtebete hil zela eta, joan den igandean omenaldia egin zitzaion Udalatxen. Arrasateko HBk antolatutako omenaldian, HBko Mahai Nazionaleko kide batzuk ere parte hartu zuten. Ekintza politikoa, Xabier Zubizarretak eta Tasio Erkiak berba egin zuten. Biek Pitotek egindako lana gorai-patu eta une zailetan aurrera egiteko zuen ahalmena azpimarratu zuten. Bi zuhaitz ere landatu zituzten omen-dua gogoratzeko.

■ Plenoen ordutegi berriaren kontra

Hamahiru zinegotziren aldeko botoekin, joan den ostiraleko plenoan onartu egin zuten plenoak astelehenetan,

goizeko 9etan, eta bi hilabetero egitea. HB eta EB, berriz, ordutegi berriaren kontra azaldu ziren. Zubizarretak esan zuenez, goizetan eginez gero jendeak ezin izango du plenoetara joan. HBko zinegotzia, gainera, plenoak hileko egitearen alde azaldu zen. EBko Joseba Ugalderen iritziz, ordutegi berriarekin arrasatearrek ezin izango dute plenoetan parte hartu. Alkateak, berriz, goizeko 9etan egitea egokia dela eta beharrezkoa denean plenoak sarriago deituko dituela esan zuen.

■ Hamaika batzorde eratu

Ostiraleko plenoan hamaika batzorde eratu eta batzordeen egutegia finkatu zen. Zerbitzu, pertsonal eta hirigintza batzordeen bilerak goi-

zeta egingo dituztela eta, egutegia batzordeburuen interesen arabera finkatu dela leporatu zioten hirukoari EBkoek eta HBkoek. Zubizarretaren eta Ugalderen arabera, zinegotzietako arazoak izango dituzte lanera eta batzordeetara joateko. Puntu horretan EB abstenitu egin zen, eta HBk kontra bozkatu zuen.

Plenoaren bukaeran HBko zinegotzi batek esan zuen, komunikabideetan eurei buruz plazaratutako gauza asko gezurra direla. Informazio hori alkatearen ahotan jarritakoa zela eta, Jose Mari Loitiri informazio horien gainean azalpenak ematea eskatu zion Arexolaleibak. Alkateak erantzun zion bere ahotan komunikabideek jarritako guztia ez duela berak esan.



...Blancoren heriotza ez gaitzesteaz gain, herriari dagokionez leporatu digutena da, alkateak ez duela ondasunen eta pertsonen segurtasuna bermatzen. Eta zeinek bermatzen du? Donostiakoak, Hernanikoak, Bilbokoak, Eibarkoak... Arrasatekoak baino gehiago segurtatzen al dute akaso?

(...) Badakit HBk udal hauteskundeetan ez duela gehiengo absolutorik baina gehiengoa bai, eta gehiengoa duenak alkatetza du. ...

Gehiengoa ez genuela ordezkatzeko esatean azaldu beharko zuten zertan ez, udalgintzan edo beste gauza batzuetan. Politika orokorreko zigor operazioa besterik ez da izan, udalgintzako gaietan gehiengoarekin jardun baitugu, bestela esan dezatela zertan ez.

(...) Hemen arazoa ez da Loiti eta nire artean pertsonalizatzea, baina Loitik eta konpainiak esaten dutenaren arabera eurek argitu beharko dute euren burua.

Bagara ala ez gara? Hau da, gauzak egiazki beraiek egin badituzte ondo egongo dira, ezta? Eurek egin badituzte, eta orain esaten duten moduan gauzak gaizki egin badira beraien errua izango da, ezta? Gainera, adibidez, 1997ko aurrekontuekin dioena ez da egia, IUk eta PPK ezik gainerako alderdi guztiek onartu baikenituen".

Xabier Zubizarreta

Argia
1997-9-7



POLIZIAREN HERIOTZA SALATZEKO BILKURA

Bakearen Aldeko Koordinakundeak deituta, joan den zapatu iluntzean kontzentrazio isila egin zen Lau Biden. Daniel Villar, ostiral gauean hil zuten polizia nazionalaren heriotza kondenatzea zuen helburutzat bildurak. Hainbat arrasatearrek parte hartu zuten kontzentrazioan.

EGUZKI GRAF
inprimategia

Industrialdea 1-0-4
Telefonoa: 791844
Faxa: 792941

ARETXABALETA

DISCOPOLIS

DISKO KONPAKTOAK • KASETTEAK • BIDEOAK • OSAGARRIAK
BERRIKUNTZAK ETA KATALOGO ESKAINTZA ZABALA
Juan Carlos Gerra plaza, 1 behea • ARRASATE
Tel.: 77 02 13

“Extra” izenarekin egunkari berria kaleratuko da datorren astean Deba Garaian

Deba Garaiko informazioa eskainiko duen egunkaria argitaratuko da datorren astean, seguruen irailaren 19an. *Extra* izenarekin kaleratu den egunkarian, eskualdeko zortzi herrietako eta Aramaioko albisteen berri emango da. Egunkari berriak 16 orrialde izango ditu, eta tamainaz herri aldizkarien eta egunkarien bitarteko formatoa izango du. Astelehentan kenduta, gainontzeko egun guztietan erosi ahal izango da *Extra* kioskoetan. Deba Garaiko egunkaria elebiduna izango da, erdia euskaraz eta beste erdia gazteleraz idatziko ei dute. Astean zehar prentsurrekoa emango da, *Extran* zeintzuk egingo duten lan eta bultzatzaileak zeintzuk diren jakinarazteko.



Datorren astetik aurrera egunkari bat gehiago izango da kioskoetan.

SORRERA

Extraren bultzatzaileetarikoa batek azaldu bezala, Deba Garaiko eta Beheko kirolari buruzko informazioa emateko aldizkaria sortzea pentsatu zen hasieran.

Aztertzen hasi eta Deba Garaiko informazio orokorra emango duen egunkaria argitaratzea erabaki da. Sortzaile horren iritzi, eguneroko egunkariak eskaintzen ez duten informazioa ematea da helburua. Horregatik, *Extra* eguneroko egunkariaren gehigarria dela dio. “Deba Garaian nabaria da infor-

mazio premia, eta ez dago eguneroko hutsune hori betetzen duen medio bat”. *Extraren* sortzaileek uste dute prezioan asmatzen badute produktuak harrra ona edukiko duela”.

Bultzatzaileek, bestalde, “Deba Garaia Beti Prest” izeneko talde kulturala eratu dute, eta talde hori egongo da *Extraren* atzean. Euren esanetan, taldea irekia da eta nahi duenak parte har dezake helburua informatzea izanik.

LAN TALDEA ETA EDUKIA

Extraren lan taldea bost lagu-

nek osatzen dute: bi kazetarik, publizista batek, maketatzaileak eta administrariak eta horrez gain herrietan berriemakak dituzte. Bestalde, noizean behin kolaboratuko duten laguntzaileek ere parte hartuko dute. Bi kazetarietako bat, Arantza Egozkobal oñatiarra, zuzendari izendatu dute.

Extrari interesgarritasuna eman eta ardatzak finkatzeko, berriz, kontseilu editoriala osatuko dute. Deba Garaiko hainbat lagunek parte hartuko ei du plurala izan nahi

duen kontseiluan.

Lan taldea irailaz geroztik lanean ari da Mankomunitateak Zaldibarren utzi dien lokalean. Hala ere, proiektuak oraingoz ez du dirulaguntza publikorik jaso, eta beraz, publizitatea eta salmenta izango dira finantziabideak.

Edukiari dagokionez gai orokorrei buruzko albistek eta herrietako berriak jasoko ditu *Extrak*, eta batez ere kirolak edukiko du pisu handiena. Horrez gain, agenda bat ere jasoko da.

BAKAILO ETXEA



- Bakailoa eta beroni buruzko produktuak
- ISLANDIAKO bakailoan espezializatua
- Bakailo kazoletak prestatzen dira (bakailo gatzgabetua daukagu)

Mondragonés kalea, 7 (Azoka Plaza onduan) • Tel. 79 93 07

ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

ZU LAGUNTZEKO GAUDE!

- Lanerako zuekoak.
- Belauneko bereziak: eusteko, kirolerako.
- Bizkarreko minak kentzeko gerrikoak.

Lagun-Aro-ko errezetak hartzen ditugu.

Kontzeiño, 2 • ARRASATE • Tel.: 79 89 34

Blanca Roncal (PSE-EE)

(Iturbide Egoitzako Zuzendaritza Batzordeko lehendakaria)

“Egoitzan gastuek gora egin dute baina zerbitzua ez da hobetu”


- Zergatik erabaki du PSE-EEK azpikontratazioaren alde egitea?

- Azkenaldian egoitzan zela funtzionatu den ikusi eta orain dela urtebete hartutako erabakiaren balorazioa egin dugu. Azken urtea zela joan den ikusi ondoren, azpikontratazioaren alde egitea erabaki dugu. Bestalde, laster ongizate sailerako arduraduna kontratatuko dugunez, askatasun osoa eduki nahi dugu egoitzarako programa onenak aukeratzeko orduan. Azkenik esan nahi nuke, gastuek gora egin dutela baina horrek ez duela ekarri zerbitzuaren hobekuntza. Onurak baino arazoak eragin ditu Udalak zuzenean langileak kontratatzeak.

Langileek ondo egin dute lan, profesionaltasuna erakutsi dute. Arazoa barne gestioan egon da, eta azpikontratazioarekin arazo horiek konpon daitezke. Kontratazio zuzenak ez du derrigorrez azpikontratazioak baino kalitate handiagoa ekartzen.

- Zuzendaritza batzordean egon da gakoa?

- Zuzendaritza batzordeak ez ditu jarritako helburuak bete. Beharbada sistema arriskutsua zen orain horrekin lanean hasateko. Egoitzan aldaketak



egin behar dira, baina ez guztiak bapatean.

Familiartekoen kexak jaso ditugu azken urtea zalantzar beteta bizi izan dutela esanez. Diru gehiago jarri, kontratazio sistema aldatu, langileei lan orduak gehitu... eta hala ere zerbitzua ez da hobetu.

- Sindikatuen esanetan, azpikontratatu zerbitzua udalarendako merkeagoa izan dadila lortu nahi duzue.

- Faktore ekonomikoa hor dago, baina ez da garrantzitsuena. Azpikontratazioa aipatzean gestio-

ari buruz ari nintzen, gestioa hobetu nahi da. Kostu ekonomikoa ez da aldatetaren eragile nagusia. Kostua onartuta dago, baina diru hori ahalik eta ondoen gastatu nahi dugu.

- Orain lanean ari direnek zein aukera dute?

- Enpresa bezala eratu eta lehiaketan parte har dezakete. Horretan laguntza emateko gertu nago. Lehiaketan parte hartzen ez badute eta eurek nahi izanez gero, gaur egungo langileen zerrenda eman diezaiotkegu enpresa aukeratuari.

Iturbideko klinika laguntzaileen kezkak

Iturbide egoitzan gertatzen ari denaren berri emateko, egoitzan lan egiten duten 19 klinika laguntzaileek prentsaurrekoa eman zuten astelehenean. EAJK, PSE-EEK eta EAK zerbitzua azpikontratatu nahi dutenez, klinika laguntzaileak arduratuta azaldu eta PSE-EEri azalpenak ematea eskatu zioten.

Azken urteetan zerbitzua azpikontratatu egon ondoren, HB, EB eta PSE-EEren aldeko botoekin orain dela urtebete 19 klinika laguntzaile aukeratzeko azterketak egin ziren. Langileei kontratua urbetarako egin bazitzairen ere, astelehenean aipatutakoaren arabera, hiru urtera luza zitekeela esan zitzairen. Orain, PSE-EE azpikontratazioaren alde azaldu eta lehiaketa deituko da.

Klinika laguntzaileek aipatu zuten, horrelako erabaki bat hartu baino lehenago egoitzak zela funtzionatzen duen aztertu behar da. Euren esanetan, azpikontratazioaren alde daudenak ez dira azaldu ere egin egoitzara, bertan lana zela egiten den ikusteko. Era berean, langile aldaketak edadetuei ez diela onik egingo azpimarratu zuten. Prentsaurrean, gainera, CCOO, LAB, ELA eta ESK sindikatuetako ordezkariak parte hartu zuten azpikontratatu garestiago ateratzen dela aipatuz. Sindikatuen ustez, azpikontratazioaren atzetik interes ezkutuak eta lanpostu finkoen kontrako joera dago. Familiartekoak ere gonbidatu ziren prentsaurrean, eta hainbat familiartekok parte hartu zuten.



DATORREN URTERA ARTE

Abuztuaren 31n joan ziren uda herrian pasa duten Txernobilgo hiru neskak. Arrasaten ederto pasa dutenez, datorren udan berriro etorriko ei dira. Gainera,

Gatzagako udalak bertako bungalows-etan astebukaera pasatzeko gonbitea egin die. Horrelako gonbidapenei ezin ezetzik esan!

ZELAKO GOSEA

Extremadurako janari eta edarien erakusketa bikaina egin zen zapatuan Landako urtegian. Erakusketak gutxi iraun zuen, janaria ikustearekin batera gosetu eta Corazón de Encinako lagunak jaten hasi ziren eta. Egia esan argazkia ikustea nahikoa da "zelako gosea!" esateko.



HAURTKOA
Arrasate Pasealekua 4,
Tel.: 79 14 90
ARRASATE

beinke

SIRIMIRI
Zure gustoko arropa!
Erdiko kale, 42
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

MECA
GRUA ZERBITZUA
Grua tel.: 989 34 98 29
Renault Asisten.: 900 365 000
24 orduko zerbitzua 365 egunetan
MECA



EZKONTZA ALDREBESA

Gizona emakumez jantzita eta emakumea gizona jantzita. Horrelaxe "ezkondu" ziren bi arrasatear abuztuaren 2an. Aramaioko Andramari ermitan "ezkondu", eta ondoren Oñatiko Soraluze ostatuan bazkaldu zuten 80 gonbidatuek. Iluntze aldera karabanan heldu ziren Arrasatera, eta ondoren party pribatua eduki zuten *Magna* diskotekan. Hurrengo urtean bataioa ospatuko ote dute?

JON OZAETA

DATA

1956-9-12

Gasteizen lanean hasita zegoen Ulgor lantegia Arrasatera ekarri zuten.

Urtebete lehenago zabaldu zen Ulgor, Gasteizko San Kristobal plazan, Luis Usatorreren izenean. Hasiera hasieratik helburua Arrasatera etortzea zen, eta Ulgor Gasteizen egon zen bitartean Arrasateko azpiegitura prestatuz aritu zen Jose Mari Ormaetxea. Ulgor tailerra zeraman izen moduan, marka komertziala, berriz, Tagor, gero Fagor izenegatik aldatuko zena.



Apaiztu eta lehen meza eman zuenetik 50 urte betetzen zirenez, ospakizuna izan zuen Gaizka Barandiaran jesuita arrasatearrak San Inazio egunean. isil-isilean makina bat lan egindakoa da Gaizka. Berarendako hain data seinalatua izan zen horretan ere, umiltasunez betetako ospakizuna izan zuen: familiarteko meza San Frantziskoko kapera txikian, eta gero bazkaritxo.

GEUK EGIN BEHAR PROPAGANDA!

JON OZAETA





TXIKIENAK ERE LANERA

Astean ireki ditu ateak umezaintzak, eta horrela etxeko txikienek ikasturtea hasi dute. Lehenengo egunetan zalantza betetako aurpegiak ikusi dira: baina nora ekarri naute? Galdera hori ume askoren burutik pasako zen. Beste batzuen dako, berriz, aski ezaguna izango zen umezaintza.

EUSKAL MUSIKA

Berria, gaurkotuena,
betirako.

23 disko konpaktu
eta liburuxka bat
abestien hitzekin.



Irailaren 13tik aurrera
asteazken eta larunbatetan


Egunkaria + 550 pta.

Meningitisaren aurkako kanpaina hastera doa

Meningitisa, meningokoko, txertoa... horrelako hitzak beldurra sortu dute gizartean. Egia esateko meningitis gaisotasunak ekar ditzaketen ondorioak ikusita ez da gutxiagorako, baina aurrez neurriak hartzen badira ez du zertan larritzeko moduko gaisotasuna izan behar. Azken boladan meningitis kasuak gehitu egin direnez Osakidetza Euskal Autonomi Elkarteke gazteen artean txertoa jartzea erabaki du. Arrasaten irailaren 15an hasiko da kanpaina eta urriaren 31 arte iraungo du.

Meningitisa meningeen, hau da, entzefaloaren eta bizkarraren hezuraren muiaren inguruko puztuketak da eta bi eratakoa izan daiteke: larria edo kronikoa. Gaisotasun horrek buruko mina, logurea, dardarak eta sukarra ditu ezaugarri nagusi. Adituek diotenez meningitisa infekziozko eritasun larrienetariko da eta birusek edo bakteriek sortzen dute. Bakteriek sortutako meningitisa drogen bidez sendatzen da, baina birusek sortua denean drogek ez dute eraginik eta denbora behar izaten da gaisoa sendatzeko, berez sendatu beharra du eta. Meningokoko bakteriek sortzen dute meningitisa: arnas bideetatik sartzen dira, hortik odolera, meningeetara iritsi arte.

Meningitisaren gainean berba egiterakoan hiru mota daudela aipatu behar, A, B eta



Irailaren 15etik aurrera herriko neska-mutil askok txertoa hartuko dute.

C motakoak. Azken bolada arte A eta B erakoak ohikoenak baziren ere, une honetan Ckoak gehitu direla adierazten du Josu Ibarak, Anbulategiko sendagileak. Dena dela, gehiketa horrek ez du izurritarik ekarri, kasu isolatuak eman dira eta. "Horrela izanda ere, neurriak lehenbailehen hartzea komeni da eritasuna gizartean heda ez dadin" dio Ibarak. A, B eta C motako meningitisen arteko desberdintasun bakarra mina sortzen duen bakterian dago, bestela sendatzeko prozesua berdina da eta baita aurretik hartu beharreko neurriak ere. Meningitisa ekiditzeko txertoak daude eta behin hartuz gero, tratamendua penizilinaren bidez egiten da.


MENINGITISAREN AURKAKO KANPAINA

Aurten meningitis kasu batzuk eman direnez, komunitate autonomo batzuk txertaketa kanpaina abian jartzea erabaki dute. Horien artean Euskal Autonomi Elkartea dago. Osakidetza aginduz, hilabete honetan hasiko da Euskadin meningitis A eta C delakoaen aurkako txertaketa kanpaina, irailaren 15etik urriaren 31 arte.

18 hilabetetik 20 urtera arteko gazte guztiak hartu behar dute txertoa. Txertaketa Arrasateko ikastetxe guztietan egingo da. Kanpainaren arduradunek dena dela, ez digute egunen zerrenda eman nahi izan, oraindik guztiz zehaztu barik dagoelako, baina seguruenera 22an Erguin Herri Eskolan hasiko da.

Ikasten ari diren gazteen artean itxuraz arduradunek ondo kontrola dezakete kanpainaren eragina, baina ikasten ez dabilzanekin zer ger-

Meningitisaren kontrako txertoa jartzea komenigarria da, gaisotasuna estularen eta txistuaren bidez kutsatzen denez erraz hedatu daiteke eta. Era berean sendagileek ume txikien artean jartzea aholkatzen dute, zenbat eta adin txikiagoa izan, orduan eta gaisotasuna hartzeko aukera gehiago dagoelako.



Kanpainaren arduradunen usteak betetzen badira, Arrasateko gazte gehienak meningitisaren kontra babestuta geratuko dira hilabete honetan.

mugitu behar go eta sendagileek kontrol bat eraman dezaten, Anbulategira deitu beharko dute ordua eta eguna eskatzeko. Txertoak goizetan 9etatik 10.15ak arte emango dira eta arratsaldetan 3.30etatik 4.30etara. Umeen artean berriz, txertaketa kanpaina hobeto kontrola daitekeela uste du Ibarak eta arrazoi hauek eman ditu: "Ume txikiak dituzten gurasoak sarri joaten dira pediatrarengana eta bertan jasotzen dute informazio guztia. Beraz alde horretatik pentsatzekoa da ez dugula beldurrik izan behar".

Txertoa jartzea derrigorezkoa bada ere, gurasoen baimena behar da. Ikastetxeetan ikasle bakoitzak baimena eskatzeko paper bat jasoko du eta erantzuna ahalik eta azkarren eraman, kanpaina hasten denean sendagileek arazorik izan ez dezaten.


tatuko den azaldu du sendagileak. "Urte batetik hiru urte artera badaude ikastetxeetara joaten ez diren umeak, horiek pediatraren kontsultan izango dute txertoa jartzeko aukera. Gurasoei sendagileei informazioa eskatzeko esan behar zaie eta gertu egon daitezela prebentzio neurri hori umeei ezartzeko. Bestalde 16 urtetik 20 urtera arteko gazteen artean beste arazo bat egon daiteke. Horiek anbulategian jarri behar dute txertoa eta horretarako ordu-tegi batzuk ezarri ditugu". Kontuak kontu, ikasten ez dabilzan gazteak euren kabuz

ZER GERTATZEN DA TXERTOAK HARTZEN EZ BADA?

Meningitisaren inguruan psikosi handia piztu dela uste dute adituek. "Buruko mina, sugarra, edo logurea izateagatik ez duzu zertan meningitisa izan behar. Gertatzen dena zera da, azken boladan kasu batzuk eman direla eta ez dadin gehiago zabaldu kanpaina hasia erabaki dela. Era berean gogoratuko dut Gipuzkoan Araban eta Bizkaian baino kasu gutxiago eman direla nahiz eta horren arrazoirik ez jakin".

Egoera larritzeko modua ez bada ere, txertoa hartzea komeni da. Izan ere, eta argi hitz egiteko meningitisak heriotza eragin dezake. Gaisotasun horren bilakaeran hiru gauza gerta daitezke: hiltzea, kasu gutxitan ematen dena, guztiz sendatzea edo ondorio batzuekin gelditzea.

Azken kasu honetan gaztearen garapen psikikoaren



Urte t'erditik gorakoek hartu beharko dute txertoa.

atzerapen bat ematen da eta horrek pertsonarengan arazo jasangaitzak ekar ditzake. "Horregatik da hain garrantzitsua batez ere umeen arte-

an txertoa jartzea. Meningitisa estularen eta txistuaren bidez kutsatzen da eta leku itxietan egonda errazago hedatu daiteke. Bide batez, gogora-

tuko dut zenbat eta adin txikiagoa izan, orduan eta gaitasuna hartzeko aukera gehiago dagoela".

Txerto honen eragingarri-

tasuna, beste txerto batzuk bezala, ez da %100koa baina gutxienez bi urterako babes ematen du. Gainera arriskurik ez duenez, horrek esan nahi du edonork har dezakeela.

Meningitisa gazteekin lotzen bada ere, pertsona nagusien artean ere eman daiteke. "Nagusien artean gerta daiteke, baina ez da ohikoa eragin handiagoko duelako gazteen artean. Horregatik hain zuzen ere, ez ditugu pertsona helduak txertatzen".

Meningitisa, meningokoak gure ingurutik bidaltzeko aukera gure eskutan dago. Ondorengo egunetan herriko gazteek xiringari beldurra kendu eta besoan ziztada txiki bat hartzeko gertu izan beharko dute. Une horretan senti dezaketeten minak infekziozko eritasun larrietarikoa uxatzeko balioko du.

Itxaro Zubillaga



LORAMENDIN

- **Prakak**
- **Sudaderak**
- **Txandalak**
- **Zapatilak eta abar**

%50

ZATOZ!

San Andresen eta Garibaien

Futbol entrenatzailea

JON LOITI

“Entrenatzaile lana hobby bezala dut”

— **Nola animatu zinen territorialeko emakumezko taldea hartzera?**

— Juanina Garai izan da erruduna. Nire entrenatzaile izan zen, beraz behin Mikel del Riori eta biori gazte mailako talde bat hartzeko gonbidapena egin zigun eta hemen gaude. Iaz ere entrenatzen ibili ginen, baina partidu ofizialik jokatu barik.

— **25 emakume zuen ardurapean, taldea zuzentzea zaila da?**

— Neskak jatorrak dira, hori dela eta, ez zaigu hain zaila egiten. Hala ere hasi berriak dira eta asko ikasi behar dute: teknika, zelaian kokatzen, fisikoa landu..

— **Zein maila aurkitu duzue jokalarien artean?**

— Denetik dago. Batzuek teknika handia dute, beste batzuk fisikoki ondo dabilta. Ikusitakoa ikusita, eskuartean ditugun jokalariekin badago territorial mailan talde polita ateratzeko aukera.

— **Aurtengoari begira helburuak?**

— Mikelek eta biok helburu bakarra dugu: jokalariei futboleko jokatzen irakastea. Aurten sailkapena ez zaigu inporta, nahiz eta partidu guztietan irabaztera irten. Bi urte barru, blokea lortzen dugunean, helburuak zehaztuko ditugu.

— **Neskak edo mutilak entrenatu, desberdintasunik badago?**

— Nire ustez mutilak entrenatzea samurragoa da emakumeak bereziagoak dira eta. Hala ere gustora nago emakumezko talde bat entrenatzen nabilelako.

— **Zuen taldean sartzeko baldintzarik bete behar da?**

— Futboleko jokatze gogoia izatea nahikoa da. Beraz norbait interesatuta badago Atxabalpera joan daiteke.

— **Sikologo lana betetzea tokatu zaizu?**


— Oraindik ez, baina egokituko zait. Izan ere denboraldia luzea izaten da eta arazoak ez dira falta izaten.

— **Denboraldia noiz hasiko da?**

— Urrian. Gainera aurten territorialeko maila polita egongo dela uste dut.

— **Entrenatzaile lana zer da zuretzat?**

— Hobbya baino ez. Aurrerago tituloa ateratzea gustatuko litzaidake, baina orain ondo pasatzearekin eta dakidana erakustearekin konformatzen naiz.



Mondrako ea

Mondrako emakumezko taldeak irailaren 21ean izango du 97-98 denboraldiko lehen erronka. Hasteko ez du arerio makala izango: Añorga, behar bada multzoko talde sendoena. Aurten Euskal Herriko mailan 12 talde arituko dira. Horietatik hiru nafarrak: Corella, Tuterako trofeo de la Amistad eta Barañaingo Lagunak. Bizkaiko hiru: Gernika, Sondika eta Bilbo. Gainontzekoak gipuzkoarrak: Eibartarrak, Oiartzun, Anaitasuna, Añorga, Elgoibar eta Lagun Onak. Mondrak dagoeneko bigarren urtea beteko du Maila hone-tan jokatzen. Iaz 8. tokian geratu ziren, aurten berriz postu hori hobetzen saiatuko da Juanina Garaik zuzentzen duen taldea. Taldera zazpi jokalaria berri ekarri dituzte, beraz, itxuraz iaz baino talde indartsuagoa osa dezakete. Aurten denboraldia hasi baino lehen lagun arteko bi neurketa jokatuko dituzte. Lehena zapatuan jokatu zuten territorialeko taldearen kontra eta nagusiek 6-0... irabazi zuten. Bigarrena irailaren 13an jokatuko dute Urretxu Zumarragaren kontra Zumarragan arratsaldeko 7etan.

Jokalariei dagokienez, bost emakumek utzi dute taldea: Esti Loitik, Nagore Ricok, Zorione Aperribaik, Maite Azkonagak eta Alaitz Perez de Arenazak.

Bestalde ezin da ahaztu, Euskal Herri mailako taldeaz gain, territorialekoa ere izango duela aurten Mondrak. Dagoeneko entrenatzen ari dira Jon Loiti eta Mikel del Rio entrenatzaileen aginduetara. Hauentzat denboraldia irailaren 28an hasiko da.

akumezko taldean asmo berriak

ATEZAINAK

Jone Lasagabaster, 26 urte arrasatearra.
Nagore Llodio, 17 urte arrasatearra
Sokoa Azkarate, 18 urte arrasatearra

ATZELARIAK

Iratxe Vazquez, 25 urte arrasatearra
Rebeka Ubera, 25 urte elgetarra
Amaia Garcia, 21 urte atxabaltarra
Larraitz Madariaga, 18 urte arrasatearra
Giomar Hernandez, 20 urte bergararra
Olatz Bideluze, 18 urte bergararra
Arantzazu Kortabarría, 22 urte antzuolarra.

ERDILARIAK

Izazkun Heriz, 25 urte arrasatearra
Bakartxo Luengo, 25 urte arrasatearra
Susana Santor, 20 urte arrasatearra
Agurtzane Lete, 23 urte bergararra
Ainhoa Gallastegi, 19 urte arrasatearra
Idurre Amozarrain, 17 urte arrasatearra
Josune Elkoro, 17 urte arrasatearra

AURRELARIAK

Amaia Luengo, 24 urte arrasatearra
Saioa Baena, 18 urte arrasatearra
Maite Lazkano, 17 urte bergararra
Esti Ramos, 18 urte atxabaltarra
Juli Martinez, 17 urte arrasatearra.

Aurpegi berriak

Hauek dira Mondra taldeko aurpegi berriak 1997-98 denboraldirako.



Esti Ramos



Olatz Bideluze



Maite Lazkano



Giomar Hernandez



Josune Elkoro



Juli Martinez



Arantzazu Kortabarría

Denboraldiko egutegia

97-9-21 • 98-1-18
Mondra - Añorga

97-10-26 • 98-2-15
Mondra - Eibartarra

97-12-14 • 98-3-22
Mondra - Lagunak

97-9-28 • 98-1-25
Oartzun - Mondra

97-11-9 • 98-2-22
Anaitasuna - Mondra

97-12-21 • 98-3-29
Elgoibar - Mondra

97-10-5 • 98-2-1
Mondra - Bilbo

97-11-16 • 98-3-1
Mondra - Corella

98-1-4 • 98-4-5
Mondra - Trofeo la Amistad

97-10-12 • 98-2-8
Gernika - Mondra

97-11-23 • 98-3-8
Lagun Onak - Mondra

98-1-10 • 98-4-26
Sondika - Mondra

FUTBITOIA Zaldibar txapelketa



Zaldibar txapelketako antolatzaileek bilera deitute datorren astearterako. Monterronen arratsaldeko 7etan egingo den batzarrean aurtengo txapelketako xehetasun guztiak azalduko dira. Bestalde, Zaldibarkoak ideia berri bat lantzen ari direla esan behar da. Aurten Zaldibar txiki bat antolatzeke asmoa dute. Neska-mutil gazteendako txapelketa zapatu goizetan jokatuko litzateke.

RUGBYA Partidua Garagartzan



Arrasate rugby taldeak Arrateko Zekorren kontra neurtuko ditu indarrak zapatuan arratsaldeko 5etan Garagartzan. Aurrendenboraldiko lehen partidua izango da.

ESKUBALOIA Oñatiko txapelketa




Eskubaloi taldeak Oñatiko torneoan hartuko du parte. Domekan lehen partidua jokatuko dute eta irailaren 21ean bigarrena. Irailaren 20an berriz, aurtengo aurkezpen ofiziala egingo dute Iturripen.

Aldi bi

Zigorrola, 1 • 1. pabiloia
Tel.: 71 20 02

Juan Luis Irazola

TAXISTA ETA PILOTARIA



Zortzi urte dela hartu zuen taxiaren bolantea "Alemanak" - bere ilehoriari zor dio gaitzizena-baina beti eutsi die pilota profesionalaren eskakizunei. Gaur egun, pilota enpresa kooperatibo bat antolatu nahian dabil beste bost lagunekin, txapelketetan jokatu ahal izateko eta pilotari gazteak eramateko.

1. Zein da zure horoskopoa?

Sagitario.

2. Sinestuna zara? Bai.

3. Animalia bihurtzekotan?

Zezena.

4. Zure akats

bat/gauza on bat?

Burugogor samarra/
Bihotz ona.

5. Zerk lotsarazten

zaitu? Ezerk ez.

6. Amets bat? Arrantxu

bat edukitzea,
abere askorekin.

7. Zer kenduko zenuke

mundutik? Hilketak,
drogak, gerrateak...

8. Gertakizun historiko bat?

Oiz mendian jausitako
hegazkina.

9. Nor miresten duzu? Julian Retegi.

10. Zeri diozu beldurra? HIESari.

11. Zertaz damutzen zara? Lehenago
ez ezkontzeaz.

12. Negar egin duzun azken aldia? Ez
naiz oroitzen.

13. Zer falta zaio Arrasateri? Frontoia,
eta kaleak eta semaforoak
konpontzea.

14. Eta zuri? Ezer ez.

15. Lanbidez aldatzekotan? Abereen

zaintzaile profesionala.

16. Arrasateko gustoko toki bat?

Udalpe elkarte, Osorik, Hegazka
eta Bengoa tabernak.

17. Zein da esan bai, baina azkenean

egin ez duzun gauza hori? Ehiza
egunean lehenago ez joatea.

18. Zein egunkari irakurtzen duzu? El
Diario Vasco.

19. Gustoko janari bat? Bixigua.

20. Liburu on bat? El Plan Infinito.

21. Filmerik onena/txarrena? Pretty
Woman/La guerra de las Galaxias.

22. Musika talderik onena/txarrena?
Egan/Rock taldeak.

23. Telebistako programarik
onena/txarrena? Kirolez-
kirol/Goenkale.

24. Egin dizuten oparirik politena?

Erloju bat.

25. Denbora libre zertan pasatzen

duzu? Baserriko lanak egiten.

26. Oporretarako toki bat? Galizia.

27. Etxeko lanik gorrotagarriena?


Ohea egitea.

28. Gomendio bat? Langile izatea.

29. Zerbaitegatik emango zenuke

bizitza? Bakeagatik.

30. 200 milioi irabaziz gero? Arrantxu
eta etxe polit bana egingo nuke nire
emaztearekin bizitzeko.


PRESTAKUNTZA PROFESIONALERAKO ZENTRUA
EDERTASUNA
• Estetika
• Ileapaingintza
• Kiromasaia
• Irudi pertsonala
OSASUNA
• Klinika laguntzailea
• Geriatria
• Hautzaintza
• Etxe-etxeko laguntzailea
Independentzia, 22-1 • GASTEIZ
TEL: 12 07 32


HIZKUNTZAK-IDIOMAS
"Hizkuntza bat gehiago, muga bat gutxiago"
97/98 ikasturtea
MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK
Alemana, Frantsesa eta Ingelesa.
Haur, gazte eta helduendako klaseak eta orain ere
"MULTIMEDIA" Sistema eskaintzen dizuegu.
INFORMAZIOA
Araba Etorbidea, 4 • ARRASATE Olakua, 14 • OÑATI
Tel.: 71 20 55 Tel.: 71 60 00

**GASTEIZEN LEHENA!
IKAS EZAZU
ILEAPAINGINTZA!**
C&C
LLONGUERAS
ILEAPAINGINTZA
IRAKASKUNTZA ZENTRUAK
ILEAPAINGINTZA
GASTEIZ
Olagibel, 61-behea
Tel.: (945)12 03 60
MATRIKULA ZABALIK



PARDO estetika zentrua

Udako kolorea mantentzeko eta hartutako kiloak kentzeko aukera bikaina!

■ Gorputzerako tratamenduak (Ostar)

Erreafirmatu, moldeatu eta bolumena gutxitu.

Sesio bakoitza: 2.700 Pta.!!

■ Solarium-a dutxarekin

10 sesio + 1 doan = 8.000 Pta.!!

Ostar
tratamendua



Iparragirre enparantza, 4 Behea.
Grupo San Juan ☎: 79 52 17 ARRASATE

Kalitateak mugarik ez.



ARGÍ-PLASTIC

leihoen fabrikazioa P.V.C, aluminio eta poliuretano
Zigorrola, 1 8. Pabilioaia
Tel.: 77 11 30
ARRASATE

Havana: Kubako doinu eraberrituak

Gaur kontzertua eskainiko dute Gaztetxean

Kubako irla karibearean hegazkinean sartu eta, abuztuaren 18an lurra hartu zuten Euskal Herrian Havana taldeko partaideek. Orduetik hainbat kontzertu eskaini dute inguruko herrietan eta gaur, gaueko 10etan, Arrasateko Gaztetxean izango dira.

Lau musiko gazterekin osatutako talde honen hasiera 1992an bilatu behar da. Orduetik hona, taldearen bihotza den Ivan Latour-en gidaritzapean, zenbait lan kaleratu izan ditu. Azkena eta gaur egun merkaturatu dagoena, "Puertas que se abrirán" izenburuko CDa.

Zuzeneko kontzertuetan euren debutaren urtea da 97a. Urte hasieratik, bakarrik edo musika kubatarraren figura garrantzitsuekin batera, hala nola, Santiago Feliú, Síntesis, Mezcla, Paisaje con Río edo Carlos Varela-rekin, igo dira eszenatokietara. Arrasaten, dena den, bakarrik joko dute.

IRLAKO INFLUENTZIAK

Havanak "rock suabea" egiten



Havana taldeko kideak.

du- esaten du Euskal Herriko biraz arduratzen den Vicky Azkonak- baina irlako influentzia handia nabarmentzen zaie". Havanaren musikak rock estilora jotzen badu ere, saltsaren eta kantautore kubatarren influentzia jasotzen du. Dena den, estilo ezberdinak elkartzen saiatzen dira, 70. hamarkadako rock-a, blues, hard-rock, funky edo rock latinoarekin nahastuz.

Abestietako letrak eguneroko bizitza isladatzen dute, amodioa, adiskidetasuna edo natura bezalako gaiak jorratuz.

Orain arte egindako emandiek izan duten erantzunarekin pozik daudela komentatzen du Vicky Azkonak. Dagoeneko, datorren urterako eszenatoki handiagoak bisitatu duen bira luzeago bat prestatzea gustatuko litzaieke.

Bira horretarako ere, Silvio Rodríguez edo Santiago Feliú kantautore kubatarrek gonbidatzeko asmoa dute.

Bitartean, gaur bertan izango da Havana taldearen musika ezagutzeko aukera Arrasateko Gaztetxean. Egia esan, aprobetxatu beharreko zita izango da, ez baita ohikoa Kubako musikari gazteen kontzertuak ikustea inguru hauetan.

MARITXU
egunean morena
banengo...




AMAGARA

Solarium 6 sesio = 6.000 Pta.

AMAGARA

Erdiko Kale, 54 etxabea
ARRASATE • Tfnoa: 79 09 09



INES eta NAIARA, TRIKITILARIAK

Trikitixaren mugak gaindituz

Hamabost udaberri ikusi dituzte bakarrik, baina dagoeneko gauzak nahiko argi dituzte. Musikatik bizi ahal izatea gustatuko litzaieke, nahiz eta oraindik batxilergoa bukatu barik eduki. Elkartu zirenetik gauzak ondo baino hobeto joan zaizkie. Trikitixa lehiaketa ezberdinetan zenbait sari lortu dituzte, azkena orain dela gutxi: Zarauzko trikitixa txapelketa. Inesek trikitixa jotzen du, Naiarak panderoa.

- Noiz hasi zineten musika serioски lantzen?

- **Ines:** Hiru urte dela elkartu eta Elorrioko lehiaketa batera aurkeztea pentsatu genuen. Lehen saria eskuratu eta hurrengo urtean ere txapeldun izan ginen. Ordutik serioago hartu genuen gure lana. Iaz Euskadi Irratiko pieza berrien txapelketa irabazi genuenean, erromeria eta aktuazioak gehiago lantzeari ekin genion.

- Nola gogoratzen dituzue lehenengo aktuazioak?


- **Naiara:** Bakarrik erritmo kaxarekin ibiltzen ginen. Muga handiak izaten genituen eta ezin genuen nahi bezala jo, horregatik taldea handitzea pentsatu genuen. Orain bajista batekin eta batera batekin hasi gara entsaiatzen.

- Erraz integratu zarete taldean?

- **Ines:** Bai. Lehen bi lagun artean banatzen genuen erantzunkizuna eta orain lauren artean banatzen da. Musikalki ere asko irabazi dugu. Trikitixak bere mugak ditu eta ezinezkoa da trikitixa eta panderoarekin, adibidez, rock bat jotzea.

- Trikitixa beste estilo musikalekin elkartzea modan ipini da. Zuei ere bide horretatik joatea gustatuko litzaizueke?

- **Ines:** Bai. Trikitixa ez da bakarrik



sueltorako abestiak jotzeko. Instrumentu bat da eta edozein estilo musikalera molda daiteke. Erromerietan, mota eta adin guztietako jendeari gustatzen zaion musika jotzea gustatzen zaigu, ez bakarrik trikitixa.

- Zergatik du trikitixak hainbestearinoko arrakasta azken boladan?

- **Naiara:** Arrasaten eta inguruan gutxi entzun da trikitixa orain dela gutxi arte. Hala ere, Gipuzkoa erdialdean beti izan ditu jarraitzaileak. Euskal Herriko musika da eta hemen bakarrik entzun dezakegu, beraz ondo dago ohitura gordetzea.

- Maixa eta Itziar, Alaitz eta Maider... konparatu zaituzte eurekin?

- **Ines:** Askotan. Baina gure estilo propioa lortzea nahi dugu, eta ez Maixa eta Itziarren kopia izatea. Erromerietan beti jo beharko dugu, *Bexamelaren* abestia edo *Txanpon baten truke* publikoak eskatzen dituelako, baina gure musika entzuterakoan jendeak gu identifikatzea gustatuko litzaizuke.

“Gure estilo propioa lortzea nahi dugu, eta ez Maixa eta Itziarren kopia izatea”

aste gazte

■ UNIBERTSITATERAKO AUTOBUSAK

• 97-98 ikasturtean zehar unibertsitatera joan ahal izateko aukera ezberdinak ezagutu nahi badituzu, Gazte Bulegoan duzu informazioa.

■ BEKAK

• “CSIC-EFE”k, kazetari-tza zientifikoaren arloan lan egiteko 2 beka aurrikusi ditu. Epea: urriak 15.

■ LANA

• *Jardun* Bergarako euskara taldeak, astebukaeratarako begirale bat behar du. Epea: irailak 12. Informazio gehiago: 76 36 61.

• EPA Etxaurren ikastolak (Araban) pedagogo bat behar du. Eskakizunak bidaltzeko azken eguna irailak 14. Informazio gehiago (945) 39 92 87.

• Portugaleteko Enkarterriko administradore lanpostu bat bete nahi da. Epea: irailak 16.

• Basauriko Udala, liburu-zain laguntzaile baten beharrean aurkitzen da. Epea: irailak 21.

• Iruñako Udalak 2 lanpostu bete nahi ditu: A) goi mailako teknikari lanetarako, historia edo arte ederretan lizentziatu bat eta B) nekazaritza ingineru tekniko bat. Epea: irailak 28.

■ LEHIAKETAK

• Eusko Jaurlaritzak, Enpresa Sortzeko Gazteendako XII. Ideia Lehiaketa antolatatu du. Epea: irailak 19.

• Emakumeen kontakizun IV lehiaketa, Bilboko Udalak antolatuta. Euskaraz zein erdaraz, gai librea. Irailak 29.

Informazio gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA

☎ 77 00 65

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Lekeitioko alde zaharrea 70m²ko atikoa salgai. 2 logela, komuna, sukalde, ganbara eta su bajuko egongela. Guztiz jantzita. 13 milioi. Tel.: (94) 684 02 56.

• Gesalibarren etxebizitza salgai. 2.000 m²ko lursaila batean dago. Tel.: 27 58 34.

• Bergaran pisua salgai: bi logela, egongela, bainua... Tel.: 76 49 30.

• Aretxabaletan guztiz jantzitako etxebizitza salgai. Tel.: 79 47 04. Arratsaldeko 5etatik aurrera.

• Osintxun pisua salgai. 75 m². Tel.: 76 36 61. Arratsaldean

3. Errentan emateko

• Jantzitako pisua alokatzen da Zarugalden. Tel.: 79 27 15 uztailera gauean eta (946) 84 24 06 abuztuan.

• Erguinen pisua alokatzen da. Tel.: 77 00 29.

• Ikasleei pisua alokatzeko daukat. Tel.: 79 00 34.

• Ikasleendako pisua Ferixalekuan. Tel.: 79 12 81.

• Ikasleendako pisua San Andresen. Tel.: 79 39 14.

4. Errentan hartzeko

• Lau gelako pisua behar dugu Arrasaten. Tel.: 46 01 23. Aitor. Iluntzean deitu.

• Abuztuan Torrevejan apartamentua alokatu nahi dut lehenengo hamabostaldian. Tel.: 79 57 79.

• Bikotea pisu bila Arrasaten. Tel.: 79 76 88.

• Gasteizen etxebizitza alokatzeko lagun baten bila nabil. Tel.: 79 57 31.

5. Etxe konpartituak

• Arrasaten pisua konpartituko nuke gela bat alokatuz. Tel.: 51 32 40. Tito.

• Arrasaten igogailua duen pisua osatzeko pertsona erresponsiblea behar da. Tel.: 79 23 58. Gauez.

• Bi lagun gara eta etxe baten gela bat behar dugu. Tel.: 51 32 40 Tito eta 52 48 79 Asier.

• Etxea konpartitu nahi dut Arrasa-

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdut
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

ten. Tel.: 79 95 11. Kieran.

• Donostian pisua osatzeko lagun bat behar dugu. Tel.: (94) 683 15 30.

• Burgosen pisua osatzeko ikaslea behar da. Jana eta etxeko lanak egiteko pertsona daukagu. Tel.: 79 51 10 Saioa edo 79 28 05 Onintza.

• Bi ikasle hirugarren bat behar dugu Erguinen pisua osatzeko. Hilero 20.000 pta. Tel.: (94) 491 26 17 edo (94) 491 06 69.

• Lagun bat behar da Bilbon pisua osatzeko. Tel.: 98 547 27 79 edo (94) 441 77 21. Monse.

• Pisua konpartitzeko 3 edo 4 ikasle behar ditugu Eskola inguruan. Tel.: (94) 447 32 99.

• Pisua konpartituko nuke Bilbon edo Leioan. Tel.: 79 57 46. Jone.

GARAJEAK

7. Saldu

• Roneoko etxeetan garajea salgai. Tel.: 79 88 13. Gauean.

• Udalpe kalean garaje itxia salgai.

18 m². Tel.: 79 64 79. Lan orduetan, Elena.

• Garajea salgai edo alokairuan Uribarri etorbide 3an. Tel.: 79 60 96.

9. Errentan emateko

• Aldaigainen garajea alokatzen da. Tel.: 79 51 93.

• Munarren garaje itxia alokatzen da. Tel.: 79 97 03.

• Roneoko etxeetan garajea alokatzen da. Tel.: 79 19 64.

• Garajea alokagai Zarugalden. Tel.: 79 23 06.

10. Errentan hartzeko

• Garajea alokatuko genuke. Lur azpikoa ez balitz hobe. Tel.: 79 54 23. Jaione.

LOKALAK

12. Saldu

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu 100m²ko lokala salgai. Tel.: 79 07 24

14. Errentan emateko

• Erdiko kaleko 48 zenbakian edozein negozio jartzeko proposa den lokala alokatzen da. Tel.: 79 18 00.

• Janari denda errentan eman nahi dut. Tel.: 79 92 84.

15. Errentan hartzeko

• Lokal txiki bat alokatuko genuke. Tel.: 79 75 78. Esther.

LANA

17. Eskaintzak

• Emakumea gertu orduka etxeak garbitzeko. Tel.: 77 06 74.

• Zazpi urteko esperientzia duen neska umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 79 87 40.

• Emakumea prest pertsona nagusiak edo gaisoak eta baita etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 40 72.

• Neska euskalduna gertu edozein lan egiteko. Tel.: 79 48 97 eta 79 81 25. Arratsaldean.

• Esperientziadun emakumea prest goizez pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 77 04 60. Margari.

• Esperientziadun ileapaintzailea lan egiteko prest. Manikura, pedikura, depilazioa. Diplomaduna. *Pivot point* tituloduna. Tel.: 79 03 94.

• Emakumea gertu etxeak, bulegoak edo eskailerak garbitzeko. Tel.: 79 80 96.

• Emakumea gertu etxeko lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 79 07 73.

• Esperientziadun neska etxeko lanak egin eta umeak edo zaharrak zaintzeko gertu. Tel.: 79 72 92.

18. Eskaerak

• Umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko andra euskaldun bat behar da (25-44 urte bitartekoa). Tel.: 79 68 67. Deitu arratsaldeko 4etatik 8etara.

• Emakume bat behar dugu bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 95 05.

• Emakumea behar dut etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 77 00 86.

• Bi ume zaintzeko emakumea behar da. Tel.: 77 00 19.

• Umea zaindu eta etxeko lanak egiteko emakume euskalduna behar dugu. Tel.: 77 13 12.

• Pertsona bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Kotxea beharrezko da. Tel.: 908 77 53 14 edo 77 01 73.

• Emakume euskalduna behar da 4.30etatik 8.30etara bi ume zaintzeko. Dei egin astelehenetik ostegunera gaueko 9.30etatik 10etara. Tel.: 77 01 30.

19. Bestelakoak

• Euskaraz, gazteleraz eta ingeleseko itzulpenak egiten dira. Tel.: 79 79 12. Mila.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• UBlra arteko klase partikularrik ematen dira. Euskaraz eta erdaraz. Tel.: 79 46 75. Amaia.

• Injenerutza kimikoak matematika, marrazketa, kimika eta fisikako klaseak emateko gertu. Tel.: 79 25 85.

• Esperientziadun neska klase partikularrik emateko gertu. Euskaraz nahiz erdaraz. Tel.: 79 28 61.

• Magisteritza daukat eta klase partikularrik emango nituzke Musakolan. Tel.: 79 35 24.

• OHO, DBH etea beste zenbait ikasgaietako klase partikularrik ematen ditut. Esperientziaduna eta merkea. Tel.: 79 47 35.

• Irakasle tituloduna eskola partikularrik emateko gertu. Tel.: 79 94 04.

• Euskararen 2. urratsa emango dut ordubatek 3etara. Ordubeteko saioak. Tel.: 77 04 98.

21. Eskaerak

• Irailaren 8tik 26ra arte frantzeseko klase partikularrik hartuko nituzke. Tel.: 79 30 39.

MOTORRA

23. Saldu

• Opel Corsa TR 1.200 autoa salgai. Merkea. Tel.: 79 79 92.

• Dervi Vamos motorra salgai. Tel.: 79 73 42. Beatriz.

• Bi motor salgai. Suzuki DR Big 50. Prezioa: 60.000 pta. Tel.: 79 34 14. Aitzol.

• Vespa Iris 200 motorra salgai. Bl-AK. Egoera onean eta merke. Tel.: 71 51 29.

• Suzuki Address salgai. Berria. 4.000 km. 100.000 pta. Tel.: 939 44 25 44. Juan.

DENETARIK

26. Saldu

• Kanping karroa salgai. Prezioa: 50.000 pta. Tel.: 77 04 61.

• Ciclon Plus aspiragailua salduko nuke. Erreferentzia: AM-510- Fagor. Tel.: 79 50 96. Alberto.

• Bigarren eskuko akordeoia salgai. 96 baju eta egoera onean. Atrila eta eramateko karrotxoa batera saltzen da. Tel.: 79 73 18. Ikerne.

• Prestige modelo Alpen-Kreuser karrodenda salgai. 200.000 pta. Tel.: 79 61 82.

• Arrue Olimpia umeendako kotxea salgai. Egoera onean eta merkea. Tel.: 79 74 09.

• Tabernarako 4 mahai eta 16 aulkik salgai. Egoera onean. Prezioa adosteko. Tel.: 79 74 09.

• Ezkontzarako soinekoa salgai. 44 tailakoa. Aurtengoa. Merkea. Tel.: 71 51 29.

• Hozkailu bat eta sukalde bat salgai. Ia berriak daude. Tel.: 79 44 86.

27. Erosi

• Ilea lehertzeko tresna profesionala erosiko nuke. Tel.: 71 41 25. Ana.


31. Galdu

• Urrezko kate bat galdu nuen Erguin edo Eskola inguruan. Tel.: 71 20 72. Dorleta.

HARREMANAK

35. Kontaktuak

• Urriari Italiara joango den norbaitekin gustora bidaiatuko nuke. Boloñara noa. Gastuak erdibana. Dei egin eguerdian 79 34 91 telefonora. Jabi.




**MARITXU
KAJOIrako
soinekoa prestatuta
daukazu?**

SIKOLen

- **Festaldietarako soinekoak.**
- **Ehunak.**
- **Neurrira eginiko jantziak.**
- **Zorroak.**
- **Osagarriak.**

Olarte, 31
ARRASATE
Tel: 79 89 32

18 eta 30 urte bitartean badituzu, ireki ezazu kontu hau. (Behar duzun guztia sartzen da).

Batetik:		Bestetik:
Autoenplegua		Komisorik gabeko kontua
Langairako Sarrera		Libreta edo taloitegia kosturik gabe
Lana Bilatzea		Lehen urtean doan den ServiRed Gaztea Txartela
Ikasketen Aukeraketa		Ikasketetarako Kreditua Baldintza berezietan
Bekak eta Laguntzak		Zure neurriko Finantzaketa
Ordaindutako praktikak		Hipoteka Aholkularitza
Auzo-landegiak		Etxebizitza Kontua
Hizkuntz Ikastaroak		Hipoteka-Maileguak
Bolondres-lana		Promozioak
Kultur Jarduerak		Telebanka Txartela
Bidai Eskaintzak		

Eta gainera Abentura Poltsa eder hau eramango duzu. (Behar duzun guztia sartzen da).



Lau konpartimendu handi, kremailera, estutzeko uhala, heldulekua, boligrafotokia eta sare-mailazko poltsiko kremaileraduna ditu.

18 eta 30 urte bitartean badituzu, zabal ezazu Gazte Kontu bat Euskadiko Kutxan. Batetik, Orientabide Akademiko-profesionalerako Telefono Zerbitzua izango duzu -901-200 000-, lan merkatuan sartzen lagunduko dizuna.

Bestetik, zure finantza-behar guztiei erantzuneko dien banku-produktu eta zerbitzuen aukera zabala eskuratu ahal izango duzu. Eta, gainera, Abentura Poltsa eder bat eramango duzu (Promozio honek izakinak bukatu arte iraungo du).

Informazio gehiago eskuratzeko, deitu ezazu 901 200 000 telefonora.





Garikoitz Kortazar eta Aitziber Aranburuzabala eskoriatzarrak dira Arrasate Irratiko esatariak.

Astehenean negua iritsiko da Arrasate Irratira

Astehenean neguko programazioa hasiko da Arrasate Irratian.

Beti bezala goizeko 9etan hasiko da irratia emanaldia albisteen errepasoarekin. Ondoren, Goizoro izeneko saioa entzungai goizeko 11ak arte. Goizoron elkarrizketak, musika eta beste zenbait kon-

tu entzuteko aukera egongo da. Eguerdian tarte txiki bat egin, eta 2.30etan berriro mikrofonoak irekiko dira. Bixau ordua izena du arratsaldeko saioak, eta batez ere goiz partean eskainitakoa errepikatzen da. Guzti hori egunean zehar, eta gaueko 10etatik aurrera kolaboratzaileek

egindako programak.

Arrasate Irratiaren lana, hala ere, ez da ostiralean bukatzen. Larunbatean, goizeko 9etatik arratsaldeko 2.30ak arte, Jailarai eta Zoroklasikoak irratsaioak aireratu dira. FM 107.7an egin daiteke bat Arrasate Irratiarekin.

Munduari Bueltaka saioa bueltatuko da urrian

Urritik aurrera Munduari Bueltaka programa ikusteko aukera izango da ATBn. Saioan munduko tokiren batean bidaia egon den lagun bat elkarrizketatu eta pertsona horrek ateratako argazkiak erakusten dira. Udan hurbileko edo urruneko tokiren bat bisitatu baduzu, eta saioan parte hartu nahi izanez gero, deitu ATBra.

Laster Kukaraxa Motel

Iaz bezala, aurten ere Kukaraxa Motel saioan parte hartu ahal izango dute Arrasateko gaztetxoek.

Urrian pantailaratuko da Kukaraxa Motel, beraz, laster saioan parte hartzeko izenematea egin beharko duzue.


Saioa atal eta sorpresa berriekin dator.



OPEL

TAKOLO AUTOAK

Araba etorbidea, 3
(ESKATU pabilioia)
ARRASATE
Tel.: 79 05 86



Arantzazuko erromesaldia izan genuen hizpide joan den asteo argazki zaharrean, eta beste hainbeste izango dugu honetan. Orain 45 urteko erromesaldiaren irudia, Arantzazuko Goiko Bentaren ostean dagoen gurutzean aterata. Goizeko 4ak 5ak aldera trena hartuta joan ziren argazkiko arrasatearrak Oñatira, handik Arantzazura oinez igotzeko.

Behetik eta ezkerretik hasita, honako hauek dira protagonistak: Lehen lerroan Candida Otadui, Mari Cruz Urzelai, Mari Karmen Otadui eta Margarita Uribeberria. Bigarren lerroan, Lucio Uribeberria, Lurdes Egidazu (eskuak jasota duen neskatila), Jesusa Iribecampos, Isabel Mondragon eta Teresa Iribecampos. Hirugarren lerroan, Felisa Uribeberria eta Tia Maria. Goiko eta azken lerroan, Lorentzo Uribeberria, Josefina Arratibel, Castañares, San Miguel eta Juan Mari Otadui.

Urtea: 1952

Argazkia eta informazioa: Lurdes Egidazu



GRONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 79 78 15 / 77 10 42 Faxe: 77 14 76



TXATXILIPURDI

97-98

Ondo pasa ikasturte berrian!



3 urtetik aurrera

LARUNBATETAN UDALEKUAK BUELTAN!

- Jolasak • Patinatzerak • Txikiparkera
- Asteburuetakoko irteerak

Goizez edo arratsaldez:

10etatik 11tara edo 3etatik 6etara

Matrikulazio epea: irailak 30a baino lehen



11 urtetik aurrera



TAILERRAK ETA TXANGOAK

- Hankapaloak • Gitarra • Dantza edo Koreografia • Argazkilaritza • Irrati eta Telebista • Sexualitatea • Surf, Piragua

Asteburuak etxetik kanpo

Matrikulazio epea: irailak 30a baino lehen

18 urtetik aurrera

AI SIALDIKO BEGIRALE ZUZENDARI TITULOA eskuratu nahi baduzu...

HAUXE DUZU AUKERARIK ERRAZENA ETA HURBILENA!!!

Matrikulazio epea: irailak 26a baino lehen



Informa zaitez 79 54 46 telefonoan edo zator
TXATXILIPURDI ELKARTERA (Pablo Uranga kalea 4.zkb.)

Mondeo da Nagusitasuna.



Norberen kontroletik ibes egiten duten egoerak daude. Horregatik Mondeo berriarentzat alboko airbag-ak diseinatu ditugu. Baina hori ez da Mondeo berriak babesteko egiten duen guztia. Ziurtasunean barainzago doa. Estructura integrala, deformazio guneekin eta aurrealdeko barra indartzailearekin. ABS balaztatze elektronikoa banaketarekin edo ABS trakzio kontrolaz. Aurrealdeko suspentsio independentea eta atzealdeko Quadralink suspentsio sistema. Segurtasun abal ainguraketa eta pretensoreduna.

Udako eskaintza berezia: 2.426.000 pta.tik aurrera

MUGARRI

Araba etorbidea • ARRASATE
Tel.: 79 07 44 / 54 • Faxa: 79 62 54



KIA KIA MOTORS

**Deba Garaiko zerbitzu ofiziala
ARRASATEN duzu!**



MENDIOLA

Araba etorbidea • ARRASATE
Tel.: 79 20 30